

## **4. ildoak: 15-23 URTE BITARTEKO GETXOTARREI GIDABAIMENA ATERATZEKO AZTERKETA EUSKARAZ EGITEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEA**

### **1.- HARTZAILEAK**

Eskatzaileak, Getxon erroldatutako 15 eta 23 urte bitarteko gazteak izango dira (**2001-2009 bitartean jaiotakoak**, biak barne), gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin dutenak.

### **2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

**2.1.-** Eskatzaileak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin duela ziurtatu beharko du.

**2.2.-** *Gidabaimena euskaraz* kanpainan parte hartu duen Getxoko autoeskolaren batean atera beharko da, gidabaimena (ikusitako zerrenda udal webgunean).

**2.3.-** Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko da.

**2.4.-** Dirulaguntza eskatu ahal izateko azterketa eginda izan behar da. Azterketa teorikoa 2023an edo 2024an egindakoa beharko du izan eta horri dagozkion ordainagirik 2023koak edo 2024koak beharko dute izan.

**2.5.-** Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk ematen dituenekin, baina dirulaguntza guztien artean ezin izango da jaso matrikularen zenbatekoa baino gehiago.

### **3. DIRULAGUNTZA KOPURUAK**

Matrikulak lagunduko dira baina ez tasak; laguntzen esparrua hau izango da:

- **Ziklomotorren, motozikleten eta automobilen** gidabaimena ateratzeko **azterketa teorikoa** euskaraz egin eta gaituztea.
- Laguntza ez da izango eskatzailearen **gastuen %80a baino handiago eta 200 euro gehienez**. Eskatzailearen gastuak, "4. ataleko 01.-Faktura originalak" puntuan jasotzen direnak izango dira.

### **4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

**01.- Faktura originalak:** gidabaimena ateratzeko, teorikoan edota praktikoan, eskatzaileak izandako **gastuen jatorrizko ordainagiriak** (matrikula, azterketa tasak eta abar).

**02 eta 03.- ziurtagiriak. Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak.** Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko ditu ziurtagiri hauek.

**04.- Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren ziurtagiria, non esaten den gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin dela.** Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

Getxoko Udalarekin zorrik ez izatea ere konprobatuko du Euskara Zerbitzuak.